



INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumen Administrazioaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICION ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración
Ambiental

EBAZPENA, INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIARENA, INGURUMENAREN IKUSPEGITIK ERAGINKORRAK DIREN TEKNOLOGIEN ETA MATERIALEN EUSKAL ZERREDA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA EGITEN DUENA.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren bitartez, aurreikusi du hasiera ematea ingurumenaren ikuspegitik eraginkorrak diren teknologien eta materialen euskal zerrenda arautzen duen dekretua egiteko prozedurari.

Ildo horretan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 85. artikulua ezartzen duenez, ingurumen alorrean eskumenak dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailak jarduera ekonomikoetan ingurumenaren ikuspegitik eraginkorrak diren teknologiak eta materialak erabiltzea sustatuko du. Horretarako, teknologien eta materialen zerrenda bat onartu eta aldian behin eguneratuko du.

Ildo beretik, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren otsailaren 8ko 1/2024 Legearen 58. artikulua ezartzen duenez, Euskal administrazio publiko eskudunek teknika eta teknologia egokiak sustatu eta bultzatuko dituzte, jarduera ekonomikoen ekoizpen-prozesuetan txertatuta lagungarri gerta daitezen dena delako produktuaren edo prozesuaren ziklo osoan energia-kontsumoa kontrolatu ahal izateko eta berotegi-efektuko gasen emisioak kuantifikatzeko moduan murriztu ahal izateko. Horretarako, teknologia garbien zerrenda bat onartu eta aldian behin eguneratuko da, abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 85. artikuluan edo hura ordeztzen duen arauan aurreikusitako baldintzetan.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 18.2.p) artikulua arabera, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren eginkizunen artean dago Teknologia Garbien Euskal Zerrenda egitea, kontrolatzea eta haren jarraipena egitea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua 1. apartatuan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, xedapen orokor bat idatzi aurretik, herritarren iritzia jasoko da kontsulta publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarrita.

Kontsultak honako alderdi hauek aipatu behar ditu:

- Arauaren beharra eta egokitasuna
- Helburuak

Donostia kalea 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ



- Konpondu nahi diren arazoak
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak

Hori dela eta, xedapena egin aurreko kontsultaren izapidea bete nahi da, arauak eragindako herritarrek eta gainerako erakundeek parte hartzeko eta arauari ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

Horregatik guztiagatik, kontsultak:

- Erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei zabaltzen zaie, bai eta etorkizuneko araudi horren eraginpean egon daitezkeen erakunde, entitate edo elkarte guztiei ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren web-atarian argitaratuko da.
- Hamabost egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta haien entitateek egokitzen jotzen dituzten iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan aurreikusitako lege-eskemari jarraituz egiten dena. Gainera, arau-proiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 8. eta 11. artikuluek arautzen duten prestaketa-fasearen barruan.

Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2014 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. – Ingurumenaren ikuspegitik eraginkorrak diren teknologien eta materialen euskal zerrenda arautzeko dekretu-proiektua egin aurretik, kontsulta publikoaren izapidea egitea.

Bigarrena. – Arauak eragindako herritarrek eta erakundeek, hala nahi badute, ebazpen honen eranskinean planteatutako alderdiei buruzko iritzia helaraz ditzakete, hamabost egun balioduneko epean, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz,
Sinadura elektronikoa,

Sin.: Nicolás García-Borreguero Uribe
Ingurumen Administrazioaren zuzendaria

ERANSKINA, INGURUMENAREN IKUSPEGITIK ERAGINKORRAK DIREN TEKNOLOGIEN ETA MATERIALEN EUSKAL ZERREDA ARAUTZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOAREN IZAPIDEA EGITEN DUEN INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIAREN EBAZPENARENA.

1. Arauaren beharra eta egokitasuna

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailak beharrezkotzat jo du Ingurumenaren ikuspegitik Eraginkorrek diren Teknologien eta Materialen Euskal Zerrenda arautzen duen dekretu berri bat egitea, martxoaren 14ko 64/2006 Dekretua eguneratzeko eta modernizatzeko. Ingurumena, ekonomia zirkularra eta karbono gutxiko ekonomiarako trantsizioa babesten eraginkortasun handiagoz laguntzen duten teknologiak, materialak eta zerbitzuak identifikatzeko tresna da dekretu hori.

Krisi klimatikoaren erronkek, eraldaketa energetikoak eta ekoizpen-sarearen ingurumen- inpaktua murrizteko beharrak markatutako egungo testuingurua dela eta, ezinbestekoa da arau- esparru eguneratu bat izatea, jasangarritasunaren eta berrikuntza teknologikoaren eskaerei erantzungo diena.

Ekimenak Eusko Jaurlaritzak jasangarritasunaren, trantsizio energetikoaren eta ekintza klimatikoaren helburuekin duen konpromisoari erantzuten dio, Ingurumen Administrazioaren Legearekin, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearekin eta Jasangarritasun Energetikoaren Legearekin bat etorritik, besteak beste.

2. Helburuak

Dekretu berriaren helburua da indarrean dagoen Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratzea eta modernizatzea, funtsezko tresna bihurtuz politika publikoak bideratzeko eta Euskadin berrikuntza jasangarria bultzatzeko. Horren bidez, ingurumen-aktibo eraginkorrenak identifikatzen dira, eta horiek ekoizpen-prozesuetan, enpresa-kudeaketan, azpiegituretan eta jasangarritasunari lotutako jardueretan txertatzea sustatzen da.

Dekretu berriak ikuspegi hori indartu nahi du, haren irismena teknologia hertsiki industrialetatik harago zabalduz, ekonomia zirkularra, baliabideen efizientzia, zero kutsadura, klima-erresilientzia, lurzorua babesa eta enpresen ekoizpen-sarearen deskarbonizazioa bizkortzeko, eta, gainera, hautaketa-sistema berri bat finkatuz. Etorkizuneko arauak, gainera, ingurumen-, industria- eta energia-politiken arteko koordinazioa erraztu nahi du, eta esparru komun bat eskaini, laguntza-programetarako, kenkari fiskaletarako eta jasangarritasuna sustatzeko beste neurri batzuetarako erreferentzia izan dadin.

Helburua da dekretu berriak tresna arin, dinamiko eta eraginkor bat eratzea, bilakaera teknologikora eta jasangarritasun-erronka berrietara egokitzeko gai izango dena, Euskadi berritzaileagoa, lehiakorragoa eta trantsizio ekologikoarekin konprometituagoa izan dadin laguntzeko.

3. Konpondu nahi diren arazoak

Egungo Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratu egin behar da, Euskadiko teknologia-, ingurumen- eta ekoizpen-testuinguru berrira egokitu ahal izateko. Martxoaren 14ko 64/2006 Dekretua sortu zenetik, lehentasun eta jarduketa-eremu berriak sortu dira ingurumen-jasangarritasunaren, ekonomia zirkularraren eta trantsizio energetikoaren arloan, eta ez daude guztiz jasota indarrean dagoen esparruan.

4. Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak

Aurreko apartatuetan azaldutako inguruabarrak direla eta, dekretu-proiektu hau egitea beharrezkotzat jotzen da, eta ezin da beste aukera arautzailerik planteatu.